


Nire herria!

Saio honek bi helburu ditu: Klaseko dinamikan ohitzen joatea eta Euskal Herriaz informazio pixka bat izatea. Azkenik, ikasleak bere herriaren deskribapen laburra egingo du.

Esta lección tiene un doble objetivo: Ir conociendo la dinámica de trabajo del curso y transmitir información básica sobre Euskal Herria. Así mismo, en la tarea final describiremos brevemente nuestra ciudad o pueblo.

Michael hegazkinean dago, Euskal Herrira doa. Aldizkari bat du eskuan. Irakurri nahi du. Zuk? Irakurri eta azpimarratu ulertu dituzun hitzak.

Michael viaja en avión a Euskal Herria. La azafata le ha entregado una interesante revista. Léela, te interesará. Una vez leído el texto, subraya las palabras que hayas entendido.



Zer dakizu Euskal Herriaz?
¿Qué sabes sobre Euskal Herria?

Irakurmena

Non dago Euskal Herria?

Euskal Herriak 3.000.000 biztanle du.

Euskal Herrian mendi asko daude.

Euskal Herrian %30 euskalduna da,
%20 ia euskalduna eta
%50 erdalduna da.

Euskal Herria Europan dago.

EUSKAL HERRIA

Euskal Herrian hiru hizkuntza daude: euskara, gaztelera eta frantsesa. Euskara eta gaztelera Hego Euskal Herrian eta euskara eta frantsesa Ipar Euskal Herrian.

Zazpi probintzia daude:
Nafarroa, Bizkaia, Araba eta
Gipuzkoa hegoaldean, eta
Lapurdi, Zuberoa eta **Behe Nafarroa** iparraldean.

EUROPA

Gipuzkoako hiriburua Donostia da.
Bizkaiko hiriburua Bilbo da.
Arabako hiriburua Gasteiz da.
Nafarroako hiriburua Iruñea da,
Lapurdiko hiriburua Baiona da,
Zuberoakoa Maule. eta Behe Nafarroako
hiriburua Donibane Garazi da.

Ariketa

TESTUAK IRAKURRI, MAPA IKUSI ETA JARRI PROBINTZIEN IZENA.
Una vez leídos los textos, fíjate en las ciudades del mapa de la izquierda y escribe los nombres de las provincias vascas del mapa de la derecha.



Non daude probintziak?

- 1-
- 2-
- 3-
- 4-
- 5-
- 6-
- 7-

hiztegia

ZER ADIERAZI NAHI DUTE AZPIKO HITZEK?
¿Qué significan las palabras en negrita?

Asmatu hitzak!

Zer da **BIZTANLE**?

- Persona
- Habitante
- Alumno

Zer da **HIRIBURUA**?

- Pueblo
- Ciudad
- Capital

Zer da **DAGO**?

- Está
- Tiene
- Es

Zer da **HIZKUNTZA**?

- Palabra
- Ley
- Lengua

Zer da **ZAZPI**?

- Seis
- Siete
- Uno

Zer da **ETA**?

- ¿Qué?
- Y
- Pero

Estrategiak

Zer estrategia erabili duzu "Asmatu hitzak!" ariketako hitzak jakiteko?
Egin zerrenda

¿Qué estrategia has utilizado para reconocer las palabras del primer ejercicio "asmatu hitzak!"?
Enuméralas.

NON

Testuan **NON** kasuak azpimarratu ditugu. Begiratu azpiko teoriari.
Hemos subrayado la letra **-n** en el texto anterior para introducir la declinación **NON** que significa "en dónde". Fijate en los siguientes ejemplos:

- | | |
|-------------------------------|--------------------------------------|
| • Jon Bilbon dago. | Jon está en Bilbao |
| • Mikel Donostian dago. | Mikel está en Donostia. |
| • Euskal Herria Europan dago. | Euskal Herria está en Europa. |
| • Maite Londonen dago. | Maite está en Londres. |
| • Maria Parisen dago. | Maria está en Paris. |

Bokalez -N	Kontsonantez -EN
ArgentinaN AlemaniaN Euskal HerriaN	GasteizEN BrasilEN IranEN
Bokalez -AN	Kontsonantez -EAN
UdaletxeAN LorategiAN GeltokiAN	HoteiEAN AutobusEAN

Ariketa

Erantzun galderak **NON** kasua erabiliz
Responde a las preguntas utilizando el caso **NON**



Euskal Herriko Hiriburuak



- Non dago Bilbo?
- Non dago Donostia?
- Non dago Maule?
- Non dago Gasteiz?
- Non dago Baiona?
- Non dago Donibane Garazi?
- Non dago Iruñea?



Erantzun galdera NON kasua erabiliz. Ondoren, asmatu hiru galdera.
 Responde a las preguntas usando el caso NON. Luego, haz tres preguntas a tus compañeros, -as.

Eta munduan?

- Non dago Brasilia?
- Non dago Montreal?
- Non dago Dakar?
- Non dago Pekin?
- Non dago Buenos Aires?
- Non dago Santiago?
- Non dago London?
- Non dago Mosku?
- Non dago Estokolmo?
- Non dago Ankara?
- Non dago Sidney?
- Non dago Montevideo?



Non dago...?



POWER POINT AURKEZPEN BAT IKUSIKO DUZU. SAIATU MICHAEL ETA ANA, GURE LAGUNAK, NON DAUDEN ASMATZEN.

Verás una presentación power point. Tu tarea será la de adivinar en qué ciudad de Euskal Herria se encuentran nuestros amigos Michael y Ana.

Non dago Michael?

- Bilbon
- Donostian

Non dago Ana?

- Bilbon
- Donostian

**San Mames
Kursaala
zubia ibaia tranbia
irla Haizeen orrazia
Guggenheim museoa
hondartza**

Non dago leku hau?

¿Dónde se encuentra este lugar?

Bilbon	Donostian
1.	
2.	
3.	
4.	
5.	
6.	



Hiriko lekuak

Hiztegia

Ikusi azpiko irudiak eta ikasi. Gehienak leku izenak dira.
Fíjate en las imágenes y apréndete sus nombres.



HIRIBURUA



ZUBIA



IBAIA



ITSASOA



HONDARTZA



MENDIA



ZUHAITZA



ZABORTEGIA



ENPARANTZA



LANTEGIA



BIZTANLEAK



KALEA



HERRIA



PARKEA



ELIZA



HIRIA



AUTOA



UDALETXEA



UNIBERTSITATEA



Leku ezagunak

Lotu euskal hitza eta munduko lekua.
Relaciona la palabra en euskara y el lugar.

Herria

Hiria

Hiriburua

Zubia

Eliza

Ibaia

Itsasoa

Hondartza

Autoa

Kalea

Mendia

Zuhaitza

Parkea

Zaborteia

Plaza

Lantegia

Unibertsitate

Cambridge

Atlantikoa Times Square

Mercedes Paris

Golden Gate Scientology

Nilo Malibu Baobab

Piazza San Pietro Shanghai

Bethlehem Payatas

Aconcagua

Testua osatu

Osatu elkarrizketak. Jarri izena esaldietan.
Fíjate en la ilustración y completa las conversaciones con el nombre correspondiente: ELIZA, HOTELA, KAFETEGIA...

Hirian galduta



eliza



hotela



kafetegia



kiroldegia



erietxea



taberna



udaletxea



eskola



zinema



lantegia



lorategia



geltokia

Zenbat lore!
Belarra berde-berdea dago eta lore asko daude.
Bai, oso polita da _____ hau

Non dago autobusa? Berandu da!
_____ beteta dago, jende asko dago.

Zer da hori?
Hori?
San Juan _____ da. Gaur meza dago.

Aizu, non dago _____?
Hor, Euskal Herria kalean. Gaur "Matrix" filma dago.

Mesedez, haur hau gaixo dago. Non dago _____?
Non dago anbulantzia?

Hor haur asko daude. _____ da.

Aitor Sheraton _____ ean dago. Leku hau oso famatua da. Izar asko ditu. Bilbon dago.

Eta hori zer da?
Hori... bandera.
Ez, bandera ez. Leku hori.
A! Leku hori _____ da.


Eta hori zer da?
Hori, leku handi hori? Hori _____ da.
Hor daude frontoia, igerilekua, gimnasioa.

Eta eraikuntza hori zer da?
Zein, handi hori?
Bai, itsusi hori.
Hori _____ da. Tximinia luzea du.

_____ hau oso txarra da. Ez dago ardorik, ez dago zerbezarik...

Ana Bilbon dago, oso pozik dago. Hotelera joan nahi du eta taxian dago. Elkarrizketa entzun baino lehen, ikusi bideo hau. Ondo etorriko zaizu.


Ana está muy contenta de estar en Bilbao. Ahora, se encuentra en un taxi. Antes de escuchar la conversación que mantiene con el taxista, ve este video. Te vendrá bien para aprender ciertas palabras.



Bideoa

Ikusi **bideoa** eta aurkitu nola esaten diren hauek euskaraz.
Ve el video y deduce como se dicen en euskara.

Herri txiki batean



Aukeratu erantzuna. Elige la respuesta adecuada.

Nola da "delante"?

- a) Atzean
- b) Eskuinean
- c) Ezkerrean
- d) Aurrean

Nola da "a la izquierda"?

- a) Atzean
- b) Eskuinean
- c) Ezkerrean
- d) Aurrean

Nola da "detrás"?

- a) Atzean
- b) Eskuinean
- c) Ezkerrean
- d) Aurrean

Non dago Telefonoa?

- a) Tabernan
- b) Udaletxean

Nola da "a la derecha"?

- a) Atzean
- b) Eskuinean
- c) Ezkerrean
- d) Aurrean

Non dago plaza?

- a) Ezkerrean
- b) Eskuinean

Non dago frontoia?

- a) Ezkerrean
- b) Eskuinean



entzumena

Entzun elkarrizketa eta esan esaldiak egia diren ala ez.
Escucha la conversación y di si las frases son verdaderas o falsas.

Taxian





- Eguraldi ona dago.
- Lainoa dago.
- Euskalduna hotela Bilbon dago.
- Hotela Guggenheim ondoan dago.
- Hotela ez da ona.
- Bilbo hurbil dago.
- Hotel ondoan ez dago ezer.
- San Mames hurbil dago.
- Hotela eskuinean dago.
- Hotela oso polita da.

Egia	Gezurra

Irakurmena

Aurreko elkarrizketan taxistak deskribapen laburra egin du. Orain gehiago ikasiko dugu eta Euskal Herria ezagutuko dugu. Irakurri deskribapena eta asmatu non dagoen herria.

En la anterior conversación el taxista ha hecho una breve descripción. Ahora vamos a describir algunos pueblos de Euskal Herria. Además de euskara, aprenderemos algo de geografía. Lee las descripciones y deduce dónde están estos pueblos.



Non dago herria?

**Donapaleu**

Ipar Euskal Herrian dago, ipar-ekialdean. Ez dago Zuberoan eta klima atlantikoa du.

Portugaleta

Bizkaian dago, mendebaldean. Bilbotik hurbil dago, mendebaldera. Zubi famatua dago han.

Urduña

Ez dago iparraldean. Arabaren ondoan dago, baina Bizkaian dago. Oso mendebaldean dago eta klima atlantikoa du.

Otsagi

Nafarroan dago, iparraldean, baina Hego Euskal Herrian. Ekialdean dago, Santa Graziren ondoan eta mendialdeko klima du.

Santa Grazi

Iparraldean dago, Zuberoan. Ekialdean dago, mugatik gertu eta mendialdeko klima du.

Arrasate

Gipuzkoan dago, mendebaldean, klima atlantiarra du. Deba ibaia hurbil dago eta Araba eta Bizkaia ere bai. Arrasaten lantegi asko daude.

Tutera

Hego Euskal Herrian dago, oso hegoaldean. Valtieratik hurbil. Klima mediterranean-kontinental dago.

Eltziego

Hegoaldean dago, Arabaren hego-mendebaldean. Ebro ibaia hurbil dago eta muga ere bai. Trantsizioko klima du eta ardo-bodegak daude.

**ariketa**

Erantzun galderari. Responde a las preguntas.

- Lizarra Nafarroan dago?
- Non dago Agurain?
- Zer klima dago Agurainen?
- Beasain Nafarroan dago?
- Elorrio Gipuzkoan dago?
- Non dago Elorrio?
- Baigorri Hego Euskal Herrian dago?
- Zer klima dago Amaiurren?
- Amaiur Araban dago?
- Non dago Amaiur?

**binaka**

Prestatu bakoitzak bost galdera. Ondoren, binaka jarrita, egin galderak elkarri.
Escribe cinco preguntas. Reúnete con un compañer@ y preguntaselas.



entzumena

Entzun grabazioa eta idatzi adjektiboak.
Escucha la grabación y escribe estos adjetivos.

_EROA, DOTO_EA, EURI__UA, _ANDIA,
HO__A, I__USIA LEHO__A, _OLITA,
__IKIA, _ABALA, _ORAGARRIA

Adjektiboak

Ea beheko adibideekin asmatzen duzun adjektiboen esanahia.
Lee los ejemplos y adivina el significado de los adjetivos.



Euritsua



lehorra



hotza




Beroa



zabala



dotorea



Txikia



handia



itsusia



polita



zoragarria

Osatu esaldiak aukeran dituzun adjektiboekin.
Completa las frases utilizando los adjetivos del círculo.

- Senegal _____ da.
- Donostiako zabortegia, basureroa, _____ da.
- Siberia oso _____ da
- London _____ da.
- Argentinako Patagonia oso _____ da.
- Norvegiako fiordoak _____ dira.
- Paris oso _____ da.
- Errusia oso _____ da.
- Sahara _____ da.
- San Marino oso _____ da.
- Amazonas ibaia oso _____ da.

**BEROA, DOTOREA,
EURITSUA, HANDIA,
HOTZA, ITSUSIA
LEHORRA, POLITA,
TXIKIA, ZABALA,
ZORAGARRIA**



elkartze ariketa

Lotu adjektiboak

Seguramente ya conoces el significado de estos adjetivos.
Si quieres comprobarlo, haz este ejercicio. Relaciona las dos columnas.

Zer da...?

Beroa
Dotorea
Euritsua
Handia
Hotza
Itsusia
Lehorra
Polita
Txikia
Zabala
Zoragarria

Ancho,-a
Bonito,-a
Caliente
Elegante
Feo,-a
Frío,-a
Grande
Lluvioso,-a
Maravilloso,-a
Pequeño,-a
Seco,-a



irakurmena

Irakurri testutxoak eta erantzun galderai
Lee los textos y responde a las preguntas



Munduko hiriak

COPACABANA

Copacabana Brasilen dago. 300.000 biztanle du. Hondartza zoragarria du, hondartzaren izena Princesita del Mar da. Copacabana Rio de Janeiroko auzoa da. Jatetxe, zinema, banku eta sinagoga asko daude. Copacabana ondoan mendia eta hondartza daude.

BERNA

Suitzako hiriburua da. 350.000 biztanle du. Suitza Mittellanden dago. Ibaia Aar da. Bernan 11 ospitale daude. Suitzako Alpeak hurbil daude. Oso hiri dotorea da. Bernan museo eta kulturgune asko daude. Bernan dago Universal Postal Union.

DAKAR

Dakar Senegalgo hiriburua da. 2.079.000 biztanle du. Dakar Senegalen dago. Oso portu garrantzitsua du. Dakarren mezkita asko dago. Oso hiri polita eta handia da. Hondartza asko daude.

Galderei erantzun. Responde a las preguntas.

- Non dago Copacabana?
- Zenbat biztanle ditu?
- Nolakoa da hondartza?
- Zer dago Copacabana ondoan?
- Dakar da Suitzako hiriburua?
- Nolako hiria da Berna?
- Alpeak urrun daude?
- Non dago Universal Postal Union?
- Dakar Senegalgo hiriburua da?
- Zenbat biztanle du?
- Dakarren hondartza dago?

Testuak osatu

Hemos borrado algunas palabras del texto. Vuelve a colocarlas en su lugar correspondiente.

Osatu testuak azpiko hitzekin.

Euskal Herriko hiriak



biztanle da da dago lehorra

IRUÑEA

Iruñea Nafarroako hiriburua _____. 200.000 _____ du. Iruñeko ibaia Arga _____. Oso ospetsuak dira Taconerako lorategia, Iruñeko harresia eta Gaztelu enparantza. Uztailaren 7an San Ferminak dira. Iruñeko entzierroa oso famatua da. Iruñean oso Unibertsitate handia _____, eta Klinika Unibertsitaria ere bai. Nafarroako ardo gorria oso ona da. Iruñea zoragarria da. Hiri _____ da.

da du hotza ona

GASTEIZ

Gasteiz Arabako hiriburua da. 230.000 biztanle _____. Oso ospetsuak dira Artium museoa, Eusko Jaurlaritza, Ama Zuriaren enparantza. Europako lantegi asko daude: Mercedes, Daewoo, Michelin... Oso saskibaloit talde ____ dago: TAU-BASCONIA. Hiria dotorea eta berria _____. Gasteiz _____ eta zabala da.

asko dira hiri

BAIONA

Baiona Lapurdiko hiriburua da. 44.300 biztanle du. Oso famatuak _____ Baionako katedrala eta euskal museoa. Baionan denda _____ dago. Oso _____ polita da.



etxerako lana

Jarri deklinabidea.
Declina las palabras.

- Udaletxe_____ Euskadi plazan dago.
- Jendea hondartza_____ dago.
- Hiri____ez da polit_____.
- Kale hori ez dago Gasteiz_____.
- London euritsu_____ da.
- Lantegi _____ hori oso itsusia da.
- Paris _____ ez dago hondartzarik.
- Txori _____ arbola_____ dago.
- Ospitale_____ oso handia da.
- Euskal Herria Europa____ dago.
- Lorategi_____ oso ederra da.
- Bilbo Bizkaia_____ dago.
- Donostia ez dago Araba_____.
- Non dago Maule____?
- Zer dago Maule____?
- Hiri_____ oso polit_____ da.
- Hiri_____ lorategi polit_____ dago.

Jarri aditza esaldian.
Completa la frase con el verbo.

- Berlin Alemanian _____.
- Donostia oso hiri polita _____.
- Donostian hiru hondartza _____.
- Plaza hori oso polita _____.
- Horiek zuhaitzak _____.
- Non _____ Madagaskar?
- Hori ez _____ udaletxea.

Egin galdera.
Completa la pregunta con los interrogativos: NOR, ZER, NON.

- _____ dago irla hori?
- _____ dago herriko plazan?
- _____ da emakume hori?
- _____ dago Montevideon?
- _____ dago Parisen?



idatzi

Orain zure txanda da. Deskribatu zure herria.
Llegó tu turno. Describe tu pueblo o ciudad.



Zalantzarik baduzu, apuntatu hemen eta galdetu irakasleari.
Si te surge alguna duda, apúntala aquí y pregúntasela al profesor, -a.



Ikasgai honetan hau ikasi duzu. En esta lección has aprendido:

- Euskal Herriko probintziak eta hiriburuak.
Provincias y capitales de Euskal Herria.
- Deskribapen laburrak egiten.
A hacer breves descripciones de lugares.
- Leku izenak: hondartza, zubia...
Algunos nombres de lugar: hondartza, zubia...
- Galderei erantzuten: Non dago? Zer dago?
Responder a las preguntas: Non dago? Zer dago?
- NOR eta NON deklinabidea singularrean.
Declinación en singular de los casos NOR eta NON
- Adjektibo batzuk eta posposizioak.
Algunos adjetivos y posposiciones: aurrean, atzean...
- Los verbos: DA, DIRA, DU, DAGO eta DAUDE aditzak.




- Euskal Herrian hiru hizkuntza daude: euskara, gaztelera eta frantsesa. Euskara eta gaztelera Hego Euskal Herrian eta euskara eta frantsesa Ipar Euskal Herrian.
- Euskal Herrian %30 euskalduna da, %20 ia euskalduna eta %50 erdalduna da.
- Donostiako zinemaldia oso ospetsua da.
- Guggenheim museoa Bilbon dago.
- Nafarroako ardo gorria oso ona da.
- Iruñeko San Ferminak eta zezenak interesgarriak dira.
- Iparraldeko baserriak zoragarriak dira.
- Euskal Herriko bandera IKURRINA da. Zuria, gorria eta berdea.
- Tiago Spliter Gasteizko Tau-Basconiako saskibaloia jokalaria da.
- Donostian hiru hondartza daude: Kontxakoa, Zurriolakoa eta Hondarretakoa.
- Bilbon metroa eta tranbia daude.
- Euskal Herria European dago.



MATERIAL OSAGARRIA

Jarri hitzak esaldietan

Esaldiak ordenan daude. Las frases están en orden.



Baloi mahai _____ dago.

Baloia mahai _____ dago.

Baloia mahai _____ dago.

Mutila _____ dago.

Mutila _____ aurrean dago.

Pilota _____ dago.

Pilota _____ dago.

Fitxa gorria _____ dago.

_____ debekatuta dago.

_____ ere debekatuta dago.





Lapurrak ihesi

Entzun grabazioa eta asmatu nora joan diren lapurrak.

Escucha la grabación y adivina a dónde se han dirigido los ladrones.



Non daude herriak?

Irakurri pistak eta asmatu zeintzuk diren herri hauek.


Lée las pistas y adivina cómo se llaman los pueblos de la imagen.

Agaribai

Itzularan

Berete

Elgoien



- o Agaribai ekialdean dago.
- o Elgoien Itzularan ondoan dago.
- o Itzularan ez dago Agaribai ondoan.
- o Berete Itzularan eta Agaribairen ondoan dago.
- o Agaribai ez dago iparraldean.
- o Berete bidearen ezkerrean dago.
- o Itzularan ez dago ekialdean.
- o Berete ez dago ekialdean.
- o Elgoien ekialdean dago, baina errepidearen ezkerrean.
- o Agaribai ez dago bidearen eskuinean.
- o Elgoien ez dago hegoaldean. Oso iparraldean dago.
- o Itzularen iparraldean dago, errepidearen ezkerrean.





Non dago?


Hiztegi ariketa

Osatu hitzak. Azpiko marrazkian daude.
 Completa las palabras. Las puedes ver en la imagen inferior.

e_ie__ea ta_er_a u__letx_a es__la
 e__za ho__la ka_ete__a __irol__gia
 zi__ma __ante_ia lo__teg_a gel__kia

Mintzamena

Esan ikaskideari nondik joan autobus-geltokira. Ibilbide hau erabili.
 Informa a tu compañero cómo llegar a la parada de autobús. Indícale la ruta a seguir utilizando las palabras que has aprendido en esta lección (aurrera, ezkerre...)



Orain elizan zaude. Galdetu ikaskideari: Non dago lantegia?
 Te encuentras en la iglesia. Pregunta a tu compañer@: Non dago lantegia?



Binaka

Tagzania Euskal Herriko webgune bat da. Google bilatzailea erabiltzen du mundua etiketatzeko.

Zuen lana da ikaskideei GUGGEMHEIM museoa non dagoen adieraztea.

Tagzania es una página web de Euskal Herria que utilizando el Google maps brinda la oportunidad de etiquetar el mundo.

Vuestra tarea será la de explicar a vuestros compañeros dónde se encuentra el museo GUGGEMHEIM.

Tagzania Tagging the planet

Wat is this?

<http://www.tagzania.com/search/bilbao>





Non dago?


Hiztegi ariketa

Osatu hitzak. Azpiko marrazkian daude.
 Completa las palabras. Las puedes ver en la imagen inferior.

e_ie__ea ta_er_a u__letx_a es__la
 e__za ho__la ka_ete__a __irol__gia
 zi__ma __ante_ia lo__teg_a gel__kia

Mintzamena

Esan ikaskideari nondik joan lantegira. Ibilbide hau erabili.
 Informa a tu compañero cómo llegar a la fábrica. Indícale la ruta a seguir utilizando las palabras que has aprendido en esta lección (aurrera, ezkerrera...)



Orain zineman zaude. Galdetu ikaskideari: Non dago autobus-geltokia?
Te encuentras en el cine. Pregunta a tu compañer@: Non dago autobus-geltokia?



Binaka

Tagzania Euskal Herriko webgune bat da. Google mapak bilatzailea erabiltzen du mundua etiketatzeko. Zuen lana da ikaskideei LOIUKO aireportua non dagoen adieraztea.

Tagzania es una página web de Euskal Herria que utilizando el Google maps brinda la oportunidad de etiquetar el mundo. Vuestra tarea será la de explicar a vuestros compañeros dónde se encuentra el eropuerto de LOIU.

Tagzania Tagging the planet

Wat is this?

<http://www.tagzania.com/search/loi>

